

1. JARDUERA

4. GAIARI LOTUTAKOA (IKASKUNTZA EMAITZA OROKORRAK)

Irakasle taldea
ELORDI GÜENAGA, UDANE
HUITZI EGILEOR, JOSEBA XABIER
IZAGIRRE OTAEGI, ANDREA
UGARTEMENDIA YEROBI, MAIDER
URANGA ITURRIOZ, MARÍA JOSÉ
ZUBELDIA ETXEBERRIA, JOSUNE

Jarraian, ikasleei praktketan gerta diezazkiekeen hainbat egoera planteatzen dira. Egoera horiek ikaskuntza emaitza orokorrekin lotu behar dituzu, lehenengo egoeran egin den moduan.

Jarduera hau hasteko, erabili ariketaren amaieran ageri den ikaskuntza emaitza orokorren taula.

EGOERA PRAKTIKETAN	LOTUTAKO IKASKUNTZA EMAITZA ZK
Ez-hitzezko hizkuntza deigarria duen ikaslea (jarrera uzkurra, espazioaren inbasioa, hitzik gabeko gaitzespen keinuak...)	2. ZK
Ikaslea, lehen arretako erizaintzako kontsultan paziente kroniko bati jarraipena egiten, edukietan hezten hasi da, lehendik pazienteak dakiena eta jakin nahi duena aztertu gabe eta haren itxaropenak eta trebetasunak ezagutu gabe.	
Zentro gerontologiko batean praktketan dagoen ikasle batek egoiliar bat eta haren senideak artatzen ditu. Etxean, gurasoek galdetu diote ea badakien fulanito egoitza batean sartu duten, ea zergatik sartu duten, ea badakien zer gertatzen zaion...	
Ikaslea praktketara eta tutoretzara joan da ile luzea solte daramala eta irakasle-tutoreak galdetzen dioenean zergatik daraman ilea lotu gabe, erantzun du horrela erosoago sentitzen dela, diademarekin ez dela ondo sentitzen.	
Ikasle batek begiraleari esan dio: "... gaizki sentitzen naiz erizain batek aurpegi txarrez begiratzen didalako..."	
Ikasleak ez du ongi hartzen begiraleak edo irakasle tutoreak egindako feedbacka; haserretu egin da.	
Erizainak tentsioa hartzeko esan dionean, ikasleak honela erantzun du: "tentsioa hartu behar dut berriro?"	
Lehen mailako erizaintza ikasle bat gasometriak egiten dituzten unitate batean dago, eta halako bat egiten du, baina ez du fakultatean ikasi, eta ez ditu ezagutzen teknikaren aurreko prozedura, arriskuak eta konplikazioak, ezta horien aurrean jarduteko modua ere.	
Ikasle bati txirrina jo duen paziente batengana joateko esan diote, eta erantzun du ez dela joango bere pazienteak ez delako.	
Ikasleak lanak laguntzaileei delegatu dizkie aldeztu aurretik erizainarekin adostu gabe.	
Ikaslea etxe batera joaten denean, erreparoak ditu; kosta egiten zaio zainketak egitea eta zainzaile nagusiarekin hitz egitea, eta osasun zentroan baino segurtasun gutxiago du.	
Praktketan bizi izandako egoerei lotutako emozioak kanporatzeko gai ez diren ikasleak.	

Ikaskuntza emaitza orokorren taula

Z R	Ikaskuntza emaitza OROKORRAK	2. tutoretza		Azken tutoretza	
		BA I	EZ	BAI	EZ
1	Errespetuz jokatzeko erabiltzaileen iritzia, sinesmen eta balioen aurrean, eta ez du bereizketarik egiten sexu, arraza, kultura eta erlijio arrazoiengatik, balio judizioak saihestuta				
2	Atea jo, bere burua aurkeztu, eta pertsonetikiko tratuan beren izena erabiltzen du, errespetuz eta aditasunez; hitzeko hizkuntza ulergarria erabiltzen du, eta ez hitzeko hizkuntza egokia (begirada, gorputz jarrera, aurpegiko adierazpena, irribarrea...)				
3	Informazioa ematen dio erabiltzaileari erizaintzako prozedurei buruz, horiekin hasi aurretik, eta hark onartzen dituela egiaztatzen du				
4	Informazioa ematen du prozedurek eta tratamenduek izan ditzaketen kontrako efektuei buruz				
5	Erabiltzaileari eta/edo senideei informazioa eman aurretik, gaiak zenbat dakiten neurtzen saiatzen da, eta informazioa eman ondoren, hura ulertu dutela egiaztatzen du, eta sor daitezkeen zalantzak argitzen edo bideratzen ditu.				
6	Diskrezioz eta errespetuz jokatzeko erizaintzako prozeduretan, eta intimitatea zaintzen du (errezela jartzen du prozedurak hasi aurretik, intimitatea ziurtatzen du higie pertsonalean...)				
7	Konfidentzialtasuna eta sekretu profesionala bermatzen ditu, erabiltzaileen informazio pertsonalaren eta klinikoaren pribatutasuna mantenduz				
8	Erabiltzailearen parte hartzea eta inplikazioa bilatzen du, autonomia eta autozainketa bultzatuta, eta erabiltzailearen ahalik independentzia maila gorenera lortzera bideratzen ditu jarduerak				
9	Puntuala da; itxura garbia eta txukuna du, eta ongi uniformatuta dago, eta ezustekoen berri ematen du (atzerapenak, hutsuneak...)				
10	Taldea agurtzen du txandaren hasieran eta amaieran; errespetuz jokatzeko du, eta laguntzeko prest dago				
11	Asertiboa da: sentimenduak, iritziak eta pentsamenduak adierazten ditu, gainerakoek eskubideak aintzat hartuta eta ukatu gabe				
12	Entzuten, galdetzen eta informatzen du diziplina anitzeko taldekideen zaintzari lotutako jardueren inguruan (egindako jarduerak, zalantzak, aldaketak, argibideak, akatsak...)				
13	Ikasteko interesa eta hobetzeko jarrera du: prozedurak egiteko moduari adi begiratzen dio; ikasteko galdetzen du; proposatzen zaizkion hobekuntzak jaso, eta abian jartzen ditu, ikaskuntzaren erantzukizuna bere gain hartuta.				

Z R	Ikaskuntza emaitza OROKORRAK	2.		Azken	
		tutoretza	tutoretza	BAI	EZ
		BA I	EZ		
14	Aukera guztiez baliatzen da (prozedura bat egitea...) zaintzari lotutako alderdiak aztertzeko.				
15	Ekintzailea da: prozedurak egiteko prest agertzen da, gai dela irizten badio, eta laguntza eskatzen du, hala behar badu. Ekintzak egiten ditu, inork eskatzeko zain egon gabe (erizainari horren berri emanez), eta ez du neurrigabeko ausardiaz jokatzeko.				
16	Prestutasuna agertzen du, deitzen zaionean garaiz iritsita, eta erabiltzaileari eta senideei erizaintzako zerbitzuak eskuratzeko modua azaltzen die, hala behar izanez gero.				
17	Erabiltzailearen ongizateaz arduratzen da (galdetzen dio zer moduz dagoen...), eta kontuan hartzen ditu haren adierazpen guztiak.				
18	Erabiltzailearen lorpenak indartzen ditu, oso txikiak izan arren				
19	Konfiantza eta hurbiltasuna transmititzen du; adi entzuten du, eta giro egokia sortzen du, sentimenduak adierazteari begira.				
20	Enpatiaz jokatzeko du, eta pertsonen sentimenduak ulertzen ditu, distantzia profesionala mantenduta (interesa agertzen du, eta erabiltzailearen eta haren inguruko kezkak, emozioak eta sentimenduak ulertzen dituela erakusten du)				
21	Badaki zer osasun esparrutan mugitzen den, eta taldekideen rola identifikatzen ditu				
22	Dagozkion funtzioen, erabakien eta ekintzen erantzukizuna hartzen du bere gain				
23	Segurtasun klinikoa bermatzen du: arreta neurri unibertsalak (eskuak garbitzea, asepsia etengabea...), "bost zuzenen" arauen aplikazioa medikamentuak ematean, materiala arriskuak minimizatuz erabiltzea, eta hondakinak kudeatzea.				
24	Erakundearen baliabide materialak zaintzen ditu				
25	Trebea da erizaintzako prozeduretan, eta ezarritako protokoloak aplikatzen ditu, prozedura orriaren arabera				
26	Erabiltzaileen eta senideen inplikazioa bilatzen du, erabakiak hartzean, ezagutzak eta eskura dauden bitartekoak baloratu ondoren beharrezkoa den informazioa emanez, eta osasun-gaixotasun prozesuan parte hartzeko haien erabakia errespetatzen du				
27	Duintasunez bizitzeko eta hiltzeko eskubidea zaintzen du, eta alferrikako sufrimendua saihesteko neurrietan laguntzen du				
28	Erabakiak hartzeko prestutasuna transmititzen du (zaintzari lotutako iradokizunak ematen ditu...)				
29	Beste taldekide batzuen eta laguntza langileen (laguntzaileak, zaintzaileak...) esku utzi eta/edo haiekin partekatutako jarduerak identifikatzen ditu				
30	Hala behar bada, beste zerbitzu batzuetako profesionalarekin koordinatzen da (espezialitateak,				

Z K	Ikaskuntza emaitza OROKORRAK	2. tutoretza		Azken tutoretza	
		BA I	EZ	BAI	EZ
	diagnostiko probak...), eta zainketaren jarraipena antolatzen du, arretaren arlo guztien artean (erizaintzako alta...)				
31	Ongi moldatzen da taldeko kideen artean sor daitezkeen desadostasun pertsonaletan eta gatazketan, halakorik badago				
32	Hobetzeko arloak proposatzen dizkio taldeari				
33	Berrikuntza teknologikoetara egokitzen da, haien alderdi positiboak eta zailtasunak baloratuta				
34	Testuinguru guztietara egokitzen da (etxebizitzak...)				
35	Antolatzeke gai da: lanak irizpideekin antolatzen ditu, lehentasunak emanda eta denborara egokituta; eskura dauden baliabideak eraginkortasunez kudeatzen ditu, eta jarduerak lehenesten ditu, presio handiko asistentzia egoeretan (hainbat pertsonaren larrialdia...)				
36	Berak eta laguntza langileek (laguntzaileak, zaintzaileak...) egindako lanen exekuzioa balioesten du				
37	Ezusteko egoerak konpontzen edo bideratzen ditu, zailtasunen eta gabezien aurrean jarrera sortzailea hartuta eta laguntza eskatuta, hala behar bada				
38	Higiene posturaleko eta ergonomiako printzipioak aplikatzen ditu, eguneroko lanean				
39	Bere emozioak egoki kudeatzen ditu (estres egoerak, sufrimenduaren hurbiltasuna...)				
40	Erabiltzaileen erasoen aurrean bere burua babesteko gai da, halakorik gertatuko balitz				
41	Zentro-unitateak ezagutza dibulgatzeko antolatutako saioetan parte hartzen du				
42	Badaki informazioa non jaso alderdi hauei buruz: larrialdi eta ebakuazio plana; erakundearen helburuak; unitate-zentroaren plan estrategikoa eta helburu espezifikoa; unitate-zentroaren kalitatea ebaluatzeko ezarritako sistemak.				